

## Bizkaiko Foru Liburutegiko 2012ko kultura egitarauaren aurkezpena

Gaur, Miren Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatuak Foru Liburutegiaren 2012ko programazioa aurkeztu du. Programazio horretan, ohiko irakurle-taldeen gainera, hainbat tailer, erakusketa eta jardunaldi eskainiko dira (esaterako, "LiburuTEKia"). Haietan, literaturaren eta teknologia berrien arteko lotura landuko da.

Irakurketa Txokoak irekiko du aurtengo programazioa; lehen saioa urtarrilaren 26an izango da, Iñaki Uriarte ardurapean (2011ko Euskadi saria, saiakeran).

Txoko horretan, irakurketan interesa duten pertsonak bilduko dira, eta aukera egongo da irakurle eta idazleak elkartzeko. Hilean behin izango dira topaketak, txandaka, gaztelaniaz eta euskaraz. Honako idazle hauek ere parte hartuko dute irakurketa txokoa: Inaxio Mújica, Willy Uribe, Arantza Urretabizkaia, Elena Moreno, Joanes Urkixo, Jon Bilbao eta Uxue Alberdi.

Jarduera horretan bezala, Euskara Irakurle Taldeetan ere irakurketaz gozatzea da helburua, bai eta jendea Irakurketa Txokoa parte hartzera animatzea ere. Jarduera hori otsailaren 9tik apirilaren 19ra eta irailaren 20tik abenduaren 13ra izango da.

Irakurle-taldea martxoaren 1etik ekainaren 7ra egingo da; hartan, eta pertsona batzuk bilduko dira, etxean irakurritako liburu bat eta haren eragina komentatzeko: gaiak, estiloa, ekintza, pertsonaiak, eta testuak eragindako sentimenduak eta gogoetak. Talde horren hamabost egunean behin egingo dira, eta irakurketa-lanekin osatuko dira.

Jarduera horiek osagarri, bi jarduera egingo dira. Lehenengoan, "Letrak eta futbola (3): zinea, musika, poesia eta futbola" titulupean, Foru Liburutegiak eta Athletic Club fundazioak antolatutako mahai-inguruak eta hitzaldian egingo dira. Haietan, futbolari eta idazle batzuek literaturaz eta futbolaz hitz egingo dute. Ziklo hori maiatzaren 3, 10 eta 17an egingo da. Bigarren jardueran — "LibuTEKia"—, kultura-munduan teknologia berriak erabiltzeko gakoak aztertuko dira; jarduera hori azaroaren 13 eta 14an izango da.

Horrez gainera, bi erakusketa egingo dira Foru Liburutegiaren programazioaren barruan: bata, Eguillorren lanari buruzkoa, eta, bestea, "Beste liburuak-Otros libros" izenekoa. Era berean, hiru tailer egingo dira: lehena, norberaren curriculum egiteko gakoak buruzkoa; bigarrena, sormenari buruzkoa, eta, azkena, emakumeen eta literaturaren harremanei buruzkoa (azken horretan, Europako literaturaren mestizajea).

Gainera, aurtengo berrito ere, Foru Liburutegiak Bizkaidatz saria antolatuko du. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta azaroan hasiko da. Baina, lehenago, apirilean, laugarren edizioko irabazleei emango zaie saria.

"Cuentos en torno al Gorbea-Gorbeia inguruko ipuinak" jarduerak emango dio amaiera aurtengo programazioari; Seve Calleja eta Manu Etxeberria arduratuko dira jarduera horretaz, abenduaren 13an.